# ttipi-ttapa

**220.** zenbakia • 1997ko abenduak 18 • **XVI.** urtea

# TTIPI-TTAPA TELEBISTA sortu da

*Honez gero bere proba seinalea hartzen ahal da Bortzirietako telebistetan 49. kanalean*

Honez gero bere proba-seinalea ikusten ahal da Bortzirietako telebistetan 49. kanalean. Orain, hasierako lan guziak pentsatu bezala gertatzen baldin badira, bizpahiru hilabetetan lehendabiziko emisioekin hasteko moduan egonen gara.

Bitarte honetan begiratzen ahal duzue etxeko telebistan seinalea ongi hartzen duzuen. Antena kolektiboen bitartez ikusten duzuenak, berriz, egokitu egin beharko dizuete antena hori. Horretarako nahikoa da antena-jartzailearekin harremanetan jartzea eta berehala moldatuko dute.



**ttipi-ttapa TELEBISTA**

**HEMENGO TELEBISTA, BERTAKOEK EGINA BERTAKOENTZAT**



## Joxan OIZ

Berako Labiaga ikastolako zuzendariak duela 3 urtetik honat administrazioarekin duten auziaren berri eman digu. Azken hiru urteetan legez kanpoko egoeran eman dituzte eskolak DBHko ikasleek, baimenik ematen ez dietelako.

☞ 3

**28 Kirolak: 1997ko Kirol Izendegia**
Urte osoan zehar kirol munduak eman dituen izenik aipagarrienak bildu ditugu.

**6 Iritzia: Eguberrietako erosketak non?**

**31 Presoak:** Eskualdeko presoei buruzko informazioa, banan-bana.

**GEHIGARRI BEREZIA**: Urtexaharreko gehigarria erdiko orrialdeetan: urtezaharreko afariak, aholku komertzialak…





ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
Kalitatea prezio egokian
ERAKUSKETA
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034
LESAKA
LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAULKIAK...




S. SEMPER
Makineria
Ergoien Auzoa
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
Tel. eta Faxa: (943) 49 06 19
BLIZZARD Seriea
3 modelo
65, 89 eta 95 CV
landini
Azkenean!
GLOBUS Seriea
70 CV, kabina edo
kabinarik gabe
4040 SYNCHRO
Traktorea

DATUAK..........

*Nafarroa Oinez Beran egin eta geroztik azpiegitura aldetik beharrezkoak diren baldintza guziak bete arren, DBHko lerroa paratzeko baimenik ez dio eman oraindik Nafarroako Gobernuak Labiaga Ikastolari.*

*Azken hiru urteetan legez kanpoko egoera horretan hartu dituzte eskolak 100 ikaslek, eta hoietako 20k heldu den urteko ekainean akautuko dute DBHa.*

*Presio ekintzen aitzinean Hezkuntza Departamentuak agertzen duten ezaxolakeria ikusita, guraso, irakasle eta ikasleek epaitegietarat jotzea hautatu zuten, Joxan Oiz zuzendariak erran digunez.*

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ASIER GOGORZA**

**Joxan OIZ** *Labiaga Ikastolako Zuzendaria*

# "Pentsatzen dut horrelako egoera ez dela Europa osoan emanen"

**ZEIN DA DBHKO 100 IKASLE HORIEN EGOERA KONKRETUA?**

Hemen klase normalak ematen dira, baina normaltasun horren azpian irregulartasun haundi bat dago. Gauza da legeztatu gabeko 100 ikasle horietako 20k akautzen dutela aurten. Hortaz, irailean Hezkuntza Departamentura jo genuen berriz ere, eta erran ziguten ez zutela deus jakin nahi, eta tribunalen epaiaren zain gelditzen zirela, guk bide hori aukeratu genuenez. Gertatzen da Administrazioarekiko auzien epaigelan 7.000 kasutik goiti dagoela, izugarrizko saturazioa.

**TRIBUNALETARA ERAMATEAZ APARTE, BERTZE PRESIO BIDEAK ERE IBILI DITUZUE ARAZOARI IRTENBIDEA BILATZEKO, EZTA?**

Bai, irailean erabaki genuen presio ekintzekin hastea. Helburua zirikatzea zen, eta Markotegiren mahai gainean hautsak jana dagoen eskaera hori kontutan hartzea. Gainera Markotegi berarengana zuzendu genuen gure eginahala, azken finean berak baitu azken hitza.

Lehen ekintza Santo Domingoko aldapan klasea ematea izan zen eta Xabierren, berriz, agintari guzien aitzinean txilibituekin eta bere aurpegiaren karetak jauntzita agertu ginen, eta paratu zuen aurpegiagatik, erranen nuke lortu genuela pixko bat inkomodatzea. Osasunaren partiduan ere pankartatxo bat atera genuen... Prentsan islada haundiko ekintzak izan dira denak. Momentuz lortu duguna Berako ikastolako arazoa ezagutaraztea izan da gutxienez. Hauekin emaitzarik lortzen ez bada, ordea, ekintza eragínkorragoetara jo beharko genuke, beti ere biolentziarik erabili gabe eta ikastolaren filosofia saldu gabe.



*«Kendu beharreko pikorra* garela erran digute Iruñean inpunidade osoz».

*"Guk oso garbi daukagu euren irizpideak politikoak direla, eta aitzakia teknikoak erabiliz euskal irakaskuntza txikitu nahi dutela."*

**ZER DAGO ADMINISTRAZIOAREN JOERAREN ATZEAN?**

Guk hagitz garbi daukagu euren irizpideak politikoak direla, beraiek ahots txikian errana gainera, eta aitzakia teknikoak erabiliz euskal irakaskuntza txikitu nahi dutela. Ez gara beraien proiektuan sartzen eta desagertarazi nahi gaituzte.

Gaur egun arazoa Iruñean dago, Markotegiren bulegoan pipiak jana dagoen eskaera horren inguruan. Administrazioak erantzun bat eman beharko du ekainaren 21a baino lehen, eta bitartean zirikatzen segituko dugu guk.

Horrelako egoera bat, pentsatzen dut ez dela Europa osoan emanen, eta gainera harrotu egiten dira hezkuntzan aintzindari direla eta Nafarroan arazorik batere ez dagoela erra-




*Sortu da TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Honez gero bere proba-seinalea hartzen ahal da Bortziriietako telebistetan 49. kanalean. Lehen emisioak bizpahiru hilabetetan hasi ahal izatea espero da. Proiektu honek Bortziriietako alkate eta Euskara Mankomunidadearen oniritzia jaso du.*

# Sortu da TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Azaroko hondar egunetan jarri zen ikusgai TTIPI-TTAPA TELEBISTAren proba-seinalea Lesakako Frain mendiko antenatik. Orain, hasierako lan guziak pentsatu bezala gertatzen baldin badira, bizpahiru hilabetetan lehendabiziko emisioekin hasteko moduan egonen gara.

Bitarte honetan, begiratzen ahal duzue etxeko telebistan seinalea ongi hartzen duzuen. Antena kolektiboen bitartez ikusten duzuenak, berriz, egokitu egin beharko dizuete antena hori. Horretarako, nahikoa da antena-jartzaileekin harremanetan jartzea eta berehala moldatuko dute.

Momentuz TTIPI-TTAPA TELEBISTA Bortziriak eta Malerrekan ikustea da helburua, eta geroxeago, bitarteko teknikoak eta ekonomikoak posible egiten dutenean, litekeena da Saraldea eta Leitza-Goizuetara ere zabaltzea.

## Baztanen Xaloa Telebista

Eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAren modu beretsuan, Baztanen ere sortu berri da bertako telebista. Xaloa Telebista du izena eta azaroaren 18an zabaldu zituen lehen irudiak.

## Proiektu estrategikoa

Kalifikazio hori ematen dio TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk telebistaren proiektuari. Izan ere, komunikabideen mundua eta bereziki telebistarena, goitik behera aldatuko da laster. Hondar aldi honetan gero eta gehiago aipatzen diren telebista digitala, kable bidezko eskaintza eta gainerako berrikuntzek itxuraldaketa haundia emanen diote orain arte ezagutu dugun telebistari.

Eta ez hori bakarrik. Aipatu dugun aldaketa prozesuak eragin ikaragarria izanen du euskaran, gizartean ez ezik gure etxeetan duen espazio-





# Oinarrizko ezaugarriak

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk telebistaren proiektua definitua du dagoenekoz. Hauexek dira heldu den udaberrian martxan jarriko den telebistaren oinarrizko ezaugarriak:

- **EUSKARAZ.** TTIPI-TTAPA aldizkariko Audientzia Estudioaren arabera, gure herrietan bizi diren lau pertsonetatik hiruk euskaraz hartu nahi ditu bertako berriak.
- **INTEGRATZAILEA.**. Zabala, herriko bizitza agertuko duena, aniztasunaren aldekoa.
- **INDEPENDIENTEA.**. Erakunde politikoetatik eta erdarazko medioetatik. Proiektu hau ezin da nahasi bertze helburuekin mugitzen direnen interesetan.
- **OINARRI SENDOKOA.**. TTIPI-TTAPA aldizkariak profesionalki eta komertzialki babestutako proiektua da telebista. Horrekin batera, mila pertsona baino gehiagoren bazkidetza du bere alde.

**Azaro hondarrean jarri zen ikusgai TTIPI-TTAPA TELEBISTAren proba-seinalea Lesakako Fraindik. Bertzalde, Baztanen ere sortu berri da Xaloa Telebista. Honek azaroaren 18an zabaldu zituen lehen irudiak.**

an ere. Handik eta hemendik heldu zaizkigun telebista kate espezializatuen antzinean, euskararen presentzia galdua gelditzeko arriskutan dago erdarazko eskaintza guztien artean (gaztelera, frantzesa, ingelesa...). Itxuraz euskarak dituen aukeren kontrakoa dirudien egoera berri honetan, ordea, aparteko desafioa eta aukera du gure hizkuntzak: herri telebisten espazioa betetzea, *makro*arekin batera *mikroa* ere indartzen ari delako. Horretarako sortu da TTIPI-TTAPA TELEBISTA.

## TTIPI-TTAPA TELEBISTA bertako telebista

Hemengo Telebista izanen da TTIPI-TTAPA TELEBISTA, bertakoek egina, kalitatez duina eta herriz-herriko informazioa eskainiko duena bertakoen probetxurako. Arantza *Arantzago* izaten edota Ituren *Iturenago* izaten lagundu nahi luke TTIPI-TTAPA TELEBISTAk. Azken finean, telebista herrikoia eta euskaltzalea izanen da, zabala eta aniztasunaren aldekoa. Ez du inolako loturarik izanen erakunde politikoekin edota bere independentzia korapila dezaketen proiektuekin.

## Oinarri sendoa du hasiera beretik

Telebista funtzionamenduan jartzeko TTIPI-TTAPA ALDIZKARIAren eta TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAren babesa du hasiera beretik. Telebista, aldizkariaren esperientziaz baliatuko da, kazetaritzan, publizitatean eta enpresa-kudeaketan eskarmentua duen lantaldeaz azken finean. Lantalde honi jende berria ere bilduko zaio, telebistako langileak izanen diren teknikoak eta kazetariak. Eta horrekin batera, Fundazioaren laguntza ekonomikoa eta soziala ere izanen du .

## Alkate eta erakundeen oniritzia

Bortzirietako alkateek eta Euskara Mankomunidadeak oniritzia eman diote telebistari. Berako Udalak, errate baterako, Herriko Etxean bertan lekua utzi du telebistaren estudioa muntatzeko. Lesakako Udalak, bere aldetik, baimena eman dio telebistaren antenaFrainen jartzeko.

## Eta bada dirurik Telebista egiteko?

Baietz uste du Fundazioak. Behin funtzionamendu normalarekin hasiko denean Telebistak berak sortuko dituen diru sarrerak izanen ditu. Eta aldiberean, TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk ere bilduko du dirua urtero-urtero, herritar, erakunde eta enpresen aportazioei esker. Izan ere, Fundazio honek dituen helburuen artean baitago telebista eta aldizkaria diruz laguntzea. Bertzalde, proiektu honendako erakunde publiko eta erdi-publiko desberdinetatik dirulaguntzak jasotzeko modua ikusten da. Horretarako, eskaerak bideratu dira harat eta honat.

## Europa eta Cederna-Garalur

Fundazioak Europako Batzordeari aurkeztutako proiektu zabalago baten barnean dago Telebistaren proiektua, eta bertze alde batetik, Cederna-Garalur Garapen Agentziari ere eskaera formala bideratua zaio. Azken honek onartu zuen bere garaian Xaloa Telebista diruz laguntzea, eta hori ikusirik, TTIPI-TTAPA TELEBISTAren proiektua ere laguntzea espero du Fundazioak. Dena dela, arras litekeena da hurrengo TTIPI-TTAPAn bertan afera honi buruzko berri zehatzagorik izatea.■

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
ttp://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es

**uzendaria:** Joxemanuel Iri-
oien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
rozena, Asier Gogorza, Joxe-
anuel Irigoien. **Administrazioa:**
maia Goia. **Erredakzio taldea:**
ello Apezetxea, Juainas Paul,
ristina Boan, Bittori Telletxea.
**erriemaileak:** Joseba Azpiroz,
steban Arozena, Juana Mari
aizar, Ainhoa Mutuberria, Iban
asi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-
orena, Jaione Otxandorena, Al-
Fernandez, Pablo Mendiburu,
oseba Igarabide, Alizia Olaizo-
, Margari Etxenike, Koro Ira-
oki, Mixel Gerendiain, Jacque-
e, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz,
skar Txoperena, Pello Ape-
etxea, Aitor Arozena, Asier Go-
orza.
**olaboratzaileak:** EHNE Nafa-
oa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
er Etxeberria...
**nprimategia:** Graficas Ona.
*pi-ttapa*k ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
ukizunik.
**rakunde Laguntzaileak:** Be-
, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
n, Urdazubi, Zugarramurdi eta
rako udalak, Bortzirietako Eus-
ra Mankomunitatea, Malerre-
ko Zerbitzu Mankomunitatea,
garramurdiko Akelarre Elkar-
a...

**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Gabonetako erosketak non?

## Eskualdeko bezeroak, gehixeago edo guttixeago, leialak izaten dira



Carlos OSTIZ
Merkatari Elkarteko Lehendakaria

Bertizko Partzuergoarekin batera sortu zen Eskualdeko Merkatarien Elkartea, eta 60 bat denda biltzen dira bertan. Gure helburua zonaldeko turismoa sustatzea da, eta aldiberean bezeroari zerbitzuaren kalitatea eta garantia bermatzea.

Iazko eguberrietan Olentzerojoko bat antolatu genuen eta aurten Kubara bidaia zozketatuko dugu, Elkartearen barrenean dauden dendetako bezeroen artean. Horrela, hemen bertan erostea saritu nahi dugu nolabait.

Izan ere, Garbera eta Alcampo bezalako gune komertzialek kalte haundia egiten baitiote hemengo komertzio ttikiari, eta horren kontra gure burua ezagutzerat emateko kanpaina egin asmo dugu, TTIPI-TTAPAn ateriko den folleto bat, eskaparatismo lehiaketa, etab...

Eskualdeko bezeroak, guttiago edo gehixeago, leialak izaten dira, bainan jende asko Iruñeraeta joaten da egunpasa, eta beti erosten dute zerbait. Orduan guk bertze zerbitzu bat ematen saiatu behar dugu, espezializatuz, ordutegi konpetitiboa lortuz, eta bezeroari atentzio zuzena eta atseginagoa eskainiz.

## Hemengo jendea ez da sobera harrotzen gabonak direla-eta



Mª Loli DANBORIENA
Etxalarko dendaria

Nik beti errankatu dut hemengo jendea ez dela sobera harrotzen gabonak direla-eta. Bertze tokitan ikusten duzuna hemen ez da ikusten, turron pixko bat eta akaso txanpaina, baina gauza arrarorik ez dugu saltzen dendan, hagitz gauza normalak.

Orain sumatzen da jendea Garbera, Alcampo eta hoietara joaten dela, San Frantzisko eguna dela, ez dakit zer dela... eta normala da gainera, erosteko aukera gehiago baitago han.

Horren aitzinean ezin dugu deus ez egin komertzio ttikietakoek, zaila da, hemen diruaren kontua baitago tartean, eta horrek agintzen du. Han baino merkeago emaitea hagitz zaila da, eta gauza gehiago ere ez duzu emaiten ahal. Han bariedade gehiago da eta prezioan ere diferentzia, orduan horren kontra...

Egia erran, gu ez gara saiatzen, gure jendea egunerokoa baita eta ez da kanpotarrik batere etortzen. Bertizko Partzuergoko Merkatarien Elkartean ere ez ginen sartu, nik galdetuta eurek berak erran baitzidate n gure planean ez zuela sobera merezi. Ikusita zer denda klase den hau, ez zela holako bentajarik erran zuten.

## Janaren aldetik erosi beharrekoa herriko komertzioetan erosten dut



Maixux ARIZTIMUÑO
Leitzarra

Eguberrietan erosketa bereizi batzuk egin ohi dira etxerako. Janaren aldetik erosi beharrekoa, hau da, arraia, haragia, eta gauza gehienak egun hoietan bertan erosten ditut, ez lehenagotik, eta herriko komertzioetan bertan. Nik kalidadearen aldetik nahiago dut hemengoa Hipermerkatuetakoa baino, toki hoietara auskalo nondik ekarriko dituzten...

Gainera txekorrak edo bildotsak hemengoak izaten direlako nahiago dut bertan erostea. Turronak eta gauza hoiek erosteko, ordea, Iruñera medikura-edo joaten garenean probexten dugu, Eroskin edo hoietakoren batean erosteko.

Gure etxean eguberriak eta semeen urtebetetzeak juntatzen zaizkigu eta orokorrean behar dituzten gauzak erosten dizkiet normalki, arropa-eta. Orain koxkortuta daude eta konpaktoak eta musika kontuak erostera herritik kanpora joan behar izaten dugu, hemen ez baitago hortara dedikatzen den komertziorik. Bertzetik, zenbait arropa-denda badaude, baino kanpora joan ezkero aukera gehiago dago, eta herrian gehiengo batek hiri haundietara jotzen duela uste dut.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, goiz-arratsaldez irekia.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Belateko tunelak noizbait:**

Pozik hartu dugu Belateko tunelen inaugurazioaren albistea. Alde batetik, zonaldeko arazo haundi bat konpontzen duelako eta, bestetik, Euskal Herriak izan ohi duen puntu beltzenetariko bat desagertu delako.

Bazen lan hau amaitzeko garaia, zeren 1990ean zonaldeko 21 udalek aho batez obra hori eskatu zutenean estreinua 1995ean eginen zela agindu baitzuen publikoki Nafarroako Gobernuak. Hiru urtetako atzerapen honek erakusten duen seriotasun ezagatik Nafar Gobernuari kritika zorrotzena egiten diogun bitartean, zonaldeko 21 udalei zorionik beroenak ematen dizkiegu haiek baitira benetan obra hau egitea lortu dutenak.

Albiste hori pozgarria bada ere, oso ilunduta uzten dute inaugurazio hau 1990. urtean agindu bai baina bete gabe geratu diren promesek: Otsondo mendateko hobekuntzak; Arraiozko saihespidea; Oronoz-mugairi, Endarlatsa eta Dantxarineko zubi berriak; Larrakaitz eta Berrizaungo tunelak; Lekarozko bidegurutzea; Bera-Behobia zatiaren moldaketa sakona; hau dena Olagueko saihespidea ahaztu gabe. Obra guzti hauek martxan zeudela esan ziguten Nafarroako Gobernutik, baina zazpi urte pasa ondoren dena gezurra zela ikusten ari gara.

20 urte luze eman genuen zonaldean Belateko tunelen premia erreibindikatzen. Beste zazpi gehiago pasa dira inauguraziorako. Zenbat urte itxoin beharko dugu orain zazpi urte Gobernuak agindutako (goian aipatutako) obrak eginak ikusteko? Urteen poderioan beharrak ugaritu egin dira. Orain ez da aski goian aipatutako hobekuntzak gauzatzea. Haietaz gain, bada beste obra mordo bat erabat beharrezko bihurtu dena: Narbarte, Oronoz-Mugairi, Irurita eta Elizondoko saihespideak; Arigaste, Iruribieta eta Minetako tunelak; Elizondo-Aldude errepide berria; Doneztebe-Leitza, Izpegi-Baigorri eta Igantzi-Arantza errepideen hobekuntza sakonak. Eta beste hainbat.

Aurreko 20 urteetan zonaldeko jendea diskriminatuta sentitu izan gara. Nola ez gara berdin sentituko orain ere, gure betiko premiak eta eskakizunak lehengo hartan daudela ikusten dugunean? Milaka milioi pezeta inbertitzen dela legez kanpoko obra erraldoietan, eta hemen ez dela duela zazpi urte agindutako Arraiozko saihespidea egiten, adibidez? Diskriminatuta eta irainduta sentitzen gara gure errepideetatik pasatzen baita, gure etorkizun sozioekonomikoaz gain, Europara doan Euskal Herriko eta Estatuko kamioi trafiko kopuru haundienetakoa.

Hemen bizi garenon interesak eta UPN/PPren Gobernuko kideenak ez dira berdinak. Haiek inoiz urez beteko ez den Itoizko urtegian botatzen dute dirua, botoak irabazteko ezezik beren sakelak eta poltsikoak diruz ongi hornitzeko. Guri, berriz, presioaren eta erreibindikazioaren bidea geratzen zaigu soilik; Belateko tunelak bezala, herritarrentzako beste obra garrantzitsuenak egitea lortuko dugunaren konfidantzan.

Eta zer esan inaugurazioarako Espainiar Erregea ekartzeaz? Zer zentzu du Goardia Zibilen eta Ejertzitoaren buru den Borbon anakroniko honek gure presioz eta diruz, ez bereaz, egindako obra honen inaugurazioara ekartzeak? Hona hemen UPN/PPren Gobernuaren beste saio bat monarka pa leolitiko hau popularra bihurtzeko. Ezin dena ezinezko. Gure partetik MONARKIA PIKUTARA! garbi eta ozenki esaten diogu, espainiar agintarietatik errepresioa eta sufrimendua besterik ez baitugu jaso orain artean euskaldunok. Gainera, bere erruz hilabete atzeratu zaigu kotxe eta kamioiekin hortik ibiltzen hasteko aukera.

BORTZIRIAK-BAZTAN-MALERREKAKO HERRI BATASUNA

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

**Leitzeko EAren oposizioa**

Oraingo legealdian, Leitzeko Eusko Alkartasunak Alkatetzari egindako oposizioa ahal den mailan emankorra eta batez ere ixila izan da. Azken aldi hontan, bi aldiz, Udalaren egoerari buruz gure iritzia herriari adieraztea erabaki dugulako, fobia, obsesioa eta gaitza piskologikoen eraginagatik izan dela igarri du alkate jaunak.

Behar bada, HBk aurreko legealdian nozitu zuen gaitzak, EA alderdia kutsatu zuela usteko du norbaitek, baina aurreko legealdian egin zen oposizioak EAk orain egiten dugunarekin konparaziorik ez duela konturatzen ez denak memoria arazo larriak ditu. Nolanahi ere, memoria freskatu nahi duenak, irakur dezala HBk 1994ko abenduaren 8an *Egin*en (adibidez) Leitzeko Udalari buruz argitaratutako kronika. Hura bai izan zela obsesioaren eraginez Leitzeko Udala kinka larrian utzi zuen ekintza.

Orain, HBko alkateak Nafarroako Gobernuko ordezkariekin 30 bileratik gora egin omen ditu, eta Udalako diru kontuak zenbaki gorrietan. HBren salaketa harengatik Leitzeko Udalari dirua itzuli beharra suertatzen bazaio, kontuak atera nola egongo diren diru kontuak.

Leitzeko Udalean diru gutxi dago, baina lanik ez da falta. Oraingoan, aurreko zenbait legealditan ez bezala, lana era demokratikoan banatu du alkateak. Horregaitik askotan aurkitu dira EAko zinegotziak batzordeetara joan eta lehen alkateak egiten zituen gestioak egin beharrean. Alkateordezko lanak ere behin baino gehiagotan egin ditu EAk, alkateak inungo justifikaziorik gabe bere kargua utzi eta alde egin duelako. Eusko Alkartasunak hori guztia ixilean egin du, baina horrek ez du esan nahi zer egiten dugun enteratzen ez garenik. Alkateak ez dezala pentsa Leitzeko EA demokrazia eta eskakeoa berezteko gai ez denik.

EA hauteskundetara zer egin beharko duen gutxi gora behera pentsatuta aurkezten da. Leitzeko Udalean gertatzen dena gutxienik bi alderdiren erantzukizuna baita, Alkatetza eduki edo oposizioan egon.

Martxoaren 7an Udal langileen jarrera ez baina alkateak eta HBko batzuk egindakoa izan zen EArentzat eskandalugarria, Udalak eta herria geldiarazi eta lanera joatea.

Azkenik, ezin esango dugu alkatea deustaz arduratzen ez denik, ez baitu onartzen Leitzeko Udaletxearen fatxada ikurriñarik gabe argazkian ere azaltzea. Gai honi buruz EAk esan dezakena da, aurreko legealdietan ere, Alkatea zitatua izan zela Udaletxeko balkoian ikurriña jartzeagatik eta oraingo aldian edona ekintza folkloriko eta ikurriñaren desagerpen misteriotsu gabe pasa zirela erasoak. Ikurriñarekin eta ikurriñarik gabe ere, Leitzeko Udaletxean fatxada dago ikusgarriena eta barrenean jaun eta jabe egotea ez da aski; bakoitzak bere eginkizunean jabe egin behar du.

LEITZEKO EUSKO ALKARTASUNA




**Ikastaroan parte hartu duten nekazariek eramanen dute hemendik aitzinera baserriko kontabilitatea, eta ez dute orain arte bezala bertze norbaiten esku utzi beharrik izanen.**

# Kontabilitate-ikastaroa burutu dute eskualdeko 18 nekazarik ITGk antolatuta

**ITGak eskualdeko nekazarien formakuntzari begira hainbat ikastaro antolatu ohi ditu Doneztebeko Juansenea etxean. Hainbertze burukomin ematen diguten kontabilitate eta paper ofizialak eta orokorrean etxeko kontu guziak norberak eramaten ikasten dute, errate batera, Kontabilitate Erraztuari buruzko ikastaroan izena eman dutenek. Kurtso horretan irakasle den M. Jose Ieregirekin egondu gara solasean.**

✔ *Gisa honetako ikastaro bat ematen duzun lehenbiziko aldia da?*

■ Ez, ez, hiru urte daramat Nafarroa osoan zehar horrelako ikastaroak ematen, eta ez dakit dagoenekoz zenbat eman ditudan, pila bat. Halere, gehienak Erribera aldeko nekazariekin egin ditut.

✔ *Erriberan ikastaroak egiteko ohitura gehiago al dago hemen baino?*

■ Bai. Han nekazariak errexago animatzen dira, hemen, ordea, jendea lotsatu egiten dela erranen nuke, bertzeek baino guttiago jakiteko beldurra... edo ez dakit zer den. Azken finean izaera kontua izanen dela pentsatzen dut. Aurten apuntatu den jende pilarekin harrituta gaude, halere, horrelako kurtsoa izanik batez ere.

✔ *Zein dira "Nekazal Kontabilitate Erraztua" ikastaroaren*

*helburu nagusiak?*

■ Inguru honetako nekazariak euren kontu-liburuak eramateko gai izatea da nahi duguna, irabaziak eta galerak kontrolatuz.

✔ *Zenbateko iraupena dute klaseek?*

■ Hamar eguneko kurtsoa da, 4 ordu egunean. Horrela zatitzen dugu: lehenbiziko 3 egunetan oinarrizko kontzeptu batzuk erakusten zaizkie, oso gutxi, zerotik hasten baikara denekin. Gero, egiaztagiri kontableak egiten ditugu, fakturak, erreziboak egiten ikasi eta inpostuekin hasten gara segidan.

✔ *Ikasgai zailenetakoa izanen da zergena, ezta?*

■ Bai, BEZ eta PFGZ zergekin bi egun oso ematen ditugu, nola funtzionatzen duten eta dituzten erregimen aukera eta betebeharrak aztertu eta praktikara eramaten.

✔ *Ariketa praktikoak ere egiten dituzue orduan?*

■ Hori da, teoria eta praktika tartekatzen dugu lehenengo 6 egunetan, eta azkeneko lau egunetan nekazari batek urte guzian egin behar izaten dituen ariketa bereziak egiten ikasten dugu.

✔ *Zein da ikasleei gogorren subertzen zaien ariketa?*

■ Ondasun Inbertsioen Liburua nahiko konplikatua izan ohi da.

✔ *Ikastaroa akitu ondotik beraien kontuak egiten laguntzen diezue?*

■ Bai, behin ikastaroa akitu denean kezka edo zalantzaren bat baldin badute guri deitu eta galdetzea besterik ez dute, beraien arazoa azaldu eta guk lagunduko diegu zuzen bideratzen.

✔ *Zein da ikastaroan izena eman duten nekazarien tipologia?*

■ Kurtso honetako ikasle gehien-gehienak esne-behien jabeak dira, baina badira zerriekin lan egiten dutenak eta beste. Horietatik aunitz baserritik bizi dira, eta badira emakume batzuk esplotazioa beren izenean dutenak, senarra fabrikan ari delako lanean, eta orduan, emakume hoiek dira nekazariak, beren enpresa dutelako. Erran behar da baserri gehienetan kontuetaz emakumeak arduratzen direla, matriarkadoa dago arlo horretan.

✔ *Ikastaroan izena emateko esplotazioaren jabea izan behar da nahitaez?*

■ Ez, ez, kurtso hauetara nekazaria bera edo bere etxeko nornahi etor daiteke, anaia, semea... ez da bakar-bakarrik nekazariendako. Izena ematerakoan 3.000 pta ordaindu eta ikastaroa akitzean titulu edo diploma bana jasotzen dute ikasle guztiek.

✔ *Neguan egiten dira ikastaro guziak?*

■ Bai, hemengo nekazariek lan gehiago izaten baitute udan. Beti goizez egiten ditugu nahiz eta beraiek arratsaldez nahiago izan. Kontua da goizean lan egiten dutela gehienek eta arratsaldean 4 orduko eskolak pisuegiak direla, arras gogorrak.



**Berez kurtsoa erdaraz bada ere, gehienetan euskaraz aritzen da MªJose bere ikasleekin.**

## 1998KO IKASTAROAK DONEZTEBEKO JUANSENEAN

| IKASTAROAREN IZENA | NOIZ | ORDUAK |
|---|---|---|
| Sarbide-ikastaroa nekazal enpresara | otsaila | 150 |
| Hazi-emate artifiziala behietan | martxoa | 20 |
| Landa-turismoa | martxoa | 50 |
| Hestebeteak eta ehiza | martxoa | 40 |
| Soroak eta bazkak | apirila | 25 |
| Esne-ardien bazka errazionamendua | iraila | 16 |
| Ahateak gizentzeko espezializazioa | ekaina | 20 |
| Nekazal enpresaren kontabilitate informatizatua | iraila | 150 |
| Berrikuntzak Pertsona Fisikoen Gaineko Zergan (PFGZ) | azaroan | 4 |

Informazioa gehiago jaso edo ikastaro berrietan izena emateko deitu ITGren telefono honetara:

**✆ 278011 (Iruñea)**

### 1997ko IKASTAROAN PARTE HARTU DUTENEN ZERRENDA

Mª Paz IRUNGARAI (NARBARTE)
Itziar IRIGOIEN AGIRRE (LEKAROZ)
Miren Josebe JAUREGI (DONAMARIA)
Oskar ZIAURRIZ IRAIZOZ (ELIZONDO)
Arantxa ETXANDI (ARRAIOZ)
MªCruz MENDIBURU (AZPILKUETA)
Milaria MUTUBERRIA (BEINTZA)
Sagrario MUTUBERRIA (ITUREN)
Margari ITURRALDE OSKARIZ (ITUREN)
Kontxi LASTIRI (NARBARTE)
Esther ARRASTIO LARRABURU (ZIGA)
Ana Mª GOÑI AGIRRE (LEKAROZ)
Miguel ARIZABALETA (AZPILKUETA)
Patxi BENGOETXEA FELIPE (ERRATZU)
Lourdes ITURBIDE LUCAS (ERRATZU)
Joxe Mª IRIGOIEN AGIRRE (ERRATZU)
Mª Jose URSUEGI ZUBIRI (URROTZ)
Mirentxu FERNANDEZ (ELBETE)

☞ ERREPIDEAK

# Bera-Behobia errepideaz aritzeko hilaren 27an bilduko dira Nafarroa eta Gipuzkoako agintariak

## Belateko tunelak zabalduta zati hau moldatzen ez bada arriskua haundiagoa izanen da

TTIPI-TTAPA

Belate eta Almandozko tunelak zabaltzea suposatu duen pozaren ondotik, inguruko alkateek bertze errepideetan ere moldaketak *«lehenbailehen»* egitea eskatu dute.

Izan ere, tunelak irekitzerakoan ibilgailuen joan-etorria haunditu da eta hurrengo kilometroetan *«ibilgailu pilaketak sortzen ari dira, zona honetako errepideen arriskua nabarmenki haunditu z»*.

Tarte arriskutsuenetako bat Bera eta Behobia lotzen dituena da. Zati honi dagokionez, Nafarroako Gobernuko eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak, Bortzirietako udal ordezkariekin bilduko dira abenduaren 27an. Eguerdiko 12etan dute hitzordua Endarlatsan eta handik Lesakara joanen dira. Jakina denez, Gipuzkoako Diputazioak lan hau ordaintzen laguntzea nahi du Iruñeak, 1999an lanean hasteko. Gipuzkoarrak 1.000 milioi pezeta eskaintzen ditu, baina Endarlatsa-Irun zatiaren jabetza beraiena izatearen truke.





**Belate eta Almandozko tunela zabaldu zutenean ateratako irudiak. Orain, gainerako bideak moldatzea falta da** Argazkiak: GOIKO

Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkatearen erranetan, helburua bide berria *«lehenbailehen egitea da, Aceraliak egunero 2.000 Tona produzitzen dituelakoz eta materiala eta langilegoa ere hortik mugitzen direlakoz. Egiazko botila-lepoa izanen da»*. Iritzi beretsua du Manuel Iriarte, Berako alkateak: *«Belateko obra hagitz garrantzitsua da, baina orain arriskua haundiagoa izanen da»*.

Manuel Oiartzabal, Baztango alkatearen arabera, *«hainbat urtetan Belate oztopo fisiko eta sikologikoa izan da eta hori gainditu dugu, azkenean»*. Halere, Almandoztik aterata dauden bi errepideetan trafikoa pilatuko dela uste du. *«Arazo bat moldatu eta bertzea sortu da. Dantxarinearako eta Bera-Behobia bideetan planifikazio falta sumatu dugu eta arazoari irtenbidea eman behar zaio segidan»*.

Aranguren
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: (948) 63 72 66

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
✆ 63 14 03 • BERA

## BERA

# Aste osoko barauldia burutuko da abenduaren 27tik aitzinera

Antzerki eta bertso saioak antolatu dituzte ekimen horren barrenean

ASIER GOGORZA

Abenduaren 27tik urtarrilaren 3a bitartean aste osoko gose greba burutuko da Berako Kultur Etxean. Bortzirietako 13 lagunetik goiti prest agertu dira barauldia egiteko, Euskal Presoak Euskal Herrira lehenbailehen ekar ditzatela eskatuz. 40 talde eta elkarte inguruk osatzen duten Bortzirietako Herri Ekimenak bultzatu du protestaldi berri hau.

**BERTSO SAIOA URTARRILAREN 1EAN**

Aurtengo azken egunak eta heldu den urteko lehenbizikoak ez dira batere xamurrak izanen gosegrebalarientzat, baina egoera hori nolabait arindu eta konpainia pixko bat egiteko zenbait ekitaldi antolatu ditu Herri Ekimenak; gose grebaren 5. egunean, urtezahar egunean, Lamixine antzerki taldeak animazio saioa eskeiniko du, eta urteberri egunean, berriz, puntako bertso saioa antolatu dute Herri Ekimenekoek, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Xabier Silveira, Maialen Lujanbio, Jon Sarasua eta Jexux Mari Irazurekin. Kultur Etxean izanen da hori ere, arratsaldeko 6etatik aitzinera, eta gaiak paratzen Manolo Arozena ariko da.

Bertzetik, urtarrilaren 3an, eta protesta ekintzarekin akautzeko, agurra eta bertze ekitaldi berezirik ez da faltako, hoien artean Altzateraino joan-etorria.




**Senideak-en martxa Beran izan zen hilaren 10ean**

Egun hauetan Euskal Herri osoa zeharkatu duen Ekimen Ibiltariari harrera beroa egin zioten hainbat herritarrek Posta-etxearen parean: alkateak ongietorria eman eta mezu bat irakurri zuen, eta aurreskua ere eskaini zitzaien presoen senideei. Arg.: Karmele

## Olentzero

Olentzerori ongi etorri berexia eginen diote eskoletako haurrek eta Gure Toxkoako helduen taldeak elkarrekin, Herriko Etxeko plazan Erausianek antolatuta.



Arg.: GOIKO

## flash

**Mediku kontsulta** berria egiteko 34,2 milioi pezetako dirulaguntza emanen du Osasunbideak.

**Orga jokoan** Nafarroako errekor berria ezarri du Uharte-Arakilen Juantxo Petrirenak. 200 kiloko gurdia besoetan hartu eta bi itzuli terdi eman zuen beratarrak.

### "Herriak eta Hiriak"

Abenduko azken egunetan sartuta, "Herriak eta Hiriak" Kultur Hilabeteak ere azken urratsak emanen ditu. Larunbat honetan Pantxika Telleriak zuzentzen duen "Udaberriaren sakrea" antzerki emanaldia ikusgai izanen da arratsaldeko 7,30etatik aitzinera Kultur Etxean, eta bidenabar koadro erakusketaren ateak zabalduko zaizkio publikoari, eta hilaren 28a bitarte idekiak izanen dira, 6etatik 8etarat.

KONTZERTUA

Larunbat arratsean Altzaten 3 kontzertu aditu-ikusi ahalko dira. Batetik, Pettik joko du Bidaxkan (9tan), gero "Mustafa#" talde berriak (lehengo 16 jazzeroak) paratuko du Zizkan «martxa eta mozkor saltsa», eta azkenik Borrokan-ekoak ariko dira Puin, arratseko 11,30etan.

**Javier Manterola**
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

**ALZURI**
• *Sukalde tresneria eta opariak*
• *Landare eta loreak*
Tel.: 63 03 70 • BERA

**OKANE**
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

## LESAKA

# Eguberrietako ohiko ekitaldiak burutuko dira asteotan

### Olentzero eta Jaiotza lehiaketa eta Errege Kabalgata aipagarrienak

AITOR AROZENA

Urte sasoiak agintzen duen modura, Eguberrietako ekitaldiak burutuko dira asteotan. Eguberri bezperan, olentzeroak karrikaz karrika eta baserriz baserri ibiliko dira, lehiaketan –jaiotzekin batera– parte hartu aitzinetik. Arratsaldean, Tantirumairu ikastolaren eta Amnistiaren aldeko olentzeroak ere aterako dira.

Urtezahar gauan, dagoeneko ohitura bihurtu den abesbatzakoen ibilaldia izanen da, *Diostesalbe* eta Gabonkantu gehiago eskainiz.

Errege bezperan, azkenik, Errege kabalgata abiatuko da eta plazan Jaiotza biziduna paratuko da.




**Senideak erakundearen martxaren etapa Lesakan akautu zen abenduaren 10ean**

Egun osoan eskualdean barna ibili ondotik, abenduaren 10eko arratsean herrira ailegatu zen euskal preso eta errefuxiatu politikoen Senideen martxa. Ongietorri beroa eskaini zitzaien, txalaparta, dantzari, bertsolari eta txingalari baten partehartzearekin. Plazako ekitaldiaren ondotik, manifestazio ixila abiatu zen herriko karriketan barna, preso guzien argazkiak eramanez. Afaria Arranon eta ohatzea Matxinbeltzenean harrapatu zuten martxan parte hartzen duten, guraso, anai-arreba eta senitartekoek.

## flash

**Osasun Zentroan** zenbait instalazio moldatzeko 4,6 milioi pezetako dirulaguntza emanen du Osasunbideak.

**Herri-lur edo komunalei** buruzko ikerketa lanak Jesus Garitazelaiak eginen ditu, 4.725.130 pezetaren truke. Nafarroako Gobernuak oso-osorik ordainduko dituen lan hauen bidez –honela adierazi zuen behinpein, kontratazio-mahaian zegoen teknikariak–, herriko 960 lur-eremu komunal aztertuko dira eta bakoitzagatik 4.930 pezeta ordainduko dira. Sei hilabeteko epea izanen du Garitazelaiak akautzeko.

**Jon Apezetxeak** Unanue mendian duen oroitarrira martxa burutu zen San Frantzisko egunean.

## Paleta goma txapelketaren finala larunbatean jokatuko da

Larunbat honetan, abenduak 20, arratsaldeko xtan jokatuko da Batzoki elkarteak antolatutako paleta goma txapelketa Irekiaren finala. Ordubete lehenago hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko norgehiagoka jokatuko da.

Azken asteburuan jokatu ziren finalerdiak: Hita eta Eugi, Lakosta eta Larralderen kontra. Pierola eta Txoperena, Txoperena anaien kontra. Beraz, lau bikote hauen artean egonen da aurtengo txapelduna.

Guztira hogei bikotek parte hartu dute txapelketan eta antolatzaileek errandakoaren arabera, *«jokalarien maila hagitz altua izan da eta partiduak ikusgarriak suertatu dira»*.

## Beti Gazteko sokatira taldeak Nafarroako txapela eskuratu du 640 kilotan

680 kilotan bigarren izan ondotik 640 kiloz beheitiko Nafarroako txapela eskuratu zuen azaroaren 29an Beti Gazteko sokatira taldeak. Ez zen errexa izan herritarrentzat, hirugarren probara aresoarrekin berdinduta ailegatu baitziren. Halere, Leitzako proban zuten guzia eman eta irabaztea lortu zuten. Lan horren erakusgarri bezala, aipagarria da aresoarrekin 4'16' eta 3'47" tiraldiak egin zituztela. Txapela eskuratu dutenak honako hauek dira: Carmelo Mitxelena, Jose Angel Mitxelena, Jesus Mª Telletxea, Iñaki Igoa, Beñardo Iantzi, Igor Telletxea, Alejandro Sarobe eta Mikel Almandoz. Entrenatzailea: Pascual Taberna. Botilleroa: Agustin Zubieta.

Hau leitzerakoan, 600 kiloko txapelketa ere akautua egonen da, azken proba aste honetan burutzekoa baitzen Orkoienen. Hemen ere, puntutan berdinduak zeuden aresoarrak eta lesakarrak. 560ko txapelketa, berriz, asteburu honetan burutuko da, Etxarri Aranatzen.

IRU BIDE ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA



INAXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 63 74 29
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

## ETXALAR

# Sara eta Etxalarrek mugalarretako akordioa berritu dute

Haziendak batetik bertzera pasatu eta bazkatzeko eskubidea ezagutzen du

PELLO APEZETXEA

Gaur egun oroitzapen seinalea bada ere, gehien bat, lehen, eta mende aunitzez, garrantzi haundikoa izan da akita. Horrela deitzen baitzioten larre, ura eta antzekoez herrien artean sinatzen zuten akordioari. Lizuniagako mugan bildu dira berriki Sara eta Etxalarko alkateak, Berako, Azkaingo eta Urruñakoarekin. Dena den, aitzakia horrekin herrien arteko hartuemanak estutzen badira, ez da alferrikako gauza izanen.

### Bortzirietako Gazte Abesbatzaren kantaldia

Lehenengo aldiz entzuteko aukera izan genuen, Giltzarri Abesbatza, Bortzirietako gazteek osatutako kantari taldea. Abenduaren 7an, elizan, kantu ezberdinak eta hizkuntza ezberdinetan eskeini zitiguzten. Pozgarri da gazteen artean kulturarako zaletasuna sumatzea.

### Euskal Herriko usazaleak Etxalarren bildu ziren

Urteko bilkura horri buruzko infomazioa eta argazkia, 24. orrialdean.



### Onddo biltzeko afizioa

Etxalarko Iñaki Bertizek, sei urteko mutikoak, izugarrizko afizioa du onddo biltzen. Ez hori bakarrik, ederki bereizten ditu onak eta txarrak eta duela hilabete bat, kilo erdiko onddo beltz ederra harrapatu zuen, argazkian ageri dena.

### Larraburua elkarteak 80 urtekoak omendu ditu

Urtero bezala, Xabierko San Frantzisko egunean bere eguna ospatu zuen Larraburua Elkarteak. Mezan hildako lagunak gogoratu, eta, bazkaltzerakoan, aurten 80 urte bete dituztenei omenaldia egin zieten. Saroietako Jeroni Etxarte, Armitxeko Santiago Mikelestorena eta Lekuederreko Norberto Arburua izan dira omenduak. Arg.: Pello



### Oihan aprobetxamenduak egiteko bi lote enkantean salduko ditu udalak

Bi lote, enkante bidez saldu nahi ditu udalak. Otsobi eta Irumuga inguruetan 5.258 pinu (644 m³ zura eta 644 m³ suegurra). Hasierako prezioa, 3.308.564 pezeta. Burreta eta Txorimarkail inguruetan 3.984 pinu eta alertze (937 m³ zur eta 463 m³ su-egurra). Hasierako prezioa, 4.949.352 pezeta. Proposamenak, 1998ko urterrilaren 8a baino lehen aurkeztu behar dira udal idazkaritzan.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 627573 • LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • © 63 79 44
LESAKA

ttipi-ttapa
6.500 harpidedun
23.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
© 63 11 88

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 637264

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 635290
ETXALAR
udazkeneko Menu berezia
Ehiza Fianbreak
Odolkiz betetako aza pastela
Ilar eta Pikillo saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko era zaharrera prestatutako usoa, galeper arraultze eta gaztain pureaz lagunduta
Gaztain eta Txokolate Pastela
2.900 pta.
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • © 637503 • LESAKA

## IGANTZI

# Abesbatzak abenduaren 20an omenduko du Felix Mª Txoperena organojolea

### 103 urterekin hil zen Patxiku Etxeberria



**Igantziko abesbatza buru-belarri aritu da omenaldia prestatzen**

OSKAR TXOPERENA

Heldu den larunbatean, abenduak 20, bukatuko da Abesbatzak Felix Mª Txoperenari eginen dion omenaldia. Ilusioz prestatu dituen ekitaldietan parte hartzeko bertze hiru abesbatza gonbidatu ditu: Lesaka, Bera eta Leitzako Asketa abesbatzak. Kontzertua 8etan hastekoa baldin bada ere, Igantziko Abesbatzak abestuko duen 7etako mezarekin emanen zaie hasiera ekitaldiei. Kontzertuan bizpahiru kanta abestuko ditu talde bakoitzak, eta azkenik, denak batera bertze hiru. Horrelako egunetan egin ohi den moduan, mahai baten inguruan emanen zaio bukaera bestari, Zahar-etxean eginen den afariarekin. Bertan 120 lagunetik goiti bilduko dira eta afari ondotik ez da kantarik faltatuko, noski.



**Patxiku Iriberekoa hil zaigu**

Ttiki-ttikitatik agure ezagutu dugunok, Patxiku betirakoa ote zen pentsatzen hasiak ginen. Bizitzak, ordea, bere legea bete nahi izan du bertze behin ere, eta ez dio aurtengo negua gainditzen utzi. 1894ko otsailaren 20an jaio zen eta, Ameriketan zenbait urte eman bazituen ere, Iriberean pasatu du bizi gehiena. 100 urte zituenean igantziarren omenaldia hartu zuen, berak merezimendurik ez zuela uste bazuen ere. Hiru mende uztartzetik hurbil gelditu denak, duintasunez hartu zuen heriotza, hain maitekiro zaindu zuten ilobei eskerrak emanez. Ez du Iriberean agure baten hutsa utzi, mutiko batena baizik. Goian Bego.

**FOTO GOIKO**
Altzate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

**ZALAIN** JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
**Boda eta banketeak ematen dira**

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 627572 • Faxa: 637313



LESAKA

**ATM S.A.**
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 63 74 11 • Faxa: 63 73 13

**JOSE AGERRE**
PINTURA LANAK

• Fatxadak garbitu eta pintatu
• Kanpo eta barneko pinturak
• Papera lanak
• Barnizatzeak
• Gotelé
• Moketa eta zintasol
✆ 908.979306 • 637957 • IGANTZIKO BENTAK

## ARANTZA

# Euskal presoen senideek herriko zenbait talderen elkartasuna jaso zuten

Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzen da idatzian

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxeak, Gazte Asanbladak, Ekaitza elkarteak, Aterpe erretegiak, Arantzako Elkarrik eta Martin Legarra apezak sinatu zuten euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten Senideak erakundearekiko atxikimendua.

Abenduaren 10ean, arratsaldeko 5etan iritsi ziren herrira, Euskal Herrian barna ekimen ibiltaria burutzen ari diren presoen senideak. Ekaitzan kafea hartu ondotik, plazan enkartelada egin zen. Udalak, «Euskal presoak Euskal Herrira» ikurra jartzeko erabakia hartua du eta ekimen ibiltariko kideak izan ziren hori udaletxeko balkoian jarri zutenak, herriko gazte baten laguntzarekin. Herritik Berara eta Lesakara joan ziren.



Senideak erakundeak herritarren elkartasuna jaso zuen

### Abenduaren 27an Santaketan aterako dira gazteak

Abenduaren 27rako antolatu du Gazte Asanbladak, aurtengo Santaketan. Lehen urteetan ez bezala, egun bakar batean eginen dute herri guztia. Taldeka banatuak auzoak egiNen dituzte eta gero denak elkartuta gosaldu ondotik, herria eginen dute.

Bertzalde, Piriniotara eginen da eskiatzeko ateraldia. Urtarrilaren 10-11ko astebururuan Luz Ardiden mendira joateko betiko lekuetan apuntatu behar da. Gazte Asanbladakoek 6.000 pezeta ordaindu beharko dute eta ez direnak, berriz, 12.000 pezeta.

### flash

**Ura kloratzeko** eguzki plakaz osatutako ur-kloratzaile berria jarri da. 560.000 pezetako gastua izan du lan horrek, 390.000 pta Nafarroako Gobernuak subentzionatua.

**Eskolako kalefakzioa** jartze eta pintatzelanak egiten ari dira eta urte honetan bertan bukatuko omen dituzte. Bi milioi terdi pezetako gastua izanen du eta hemen ere subentzioa jasoko da.

**Donato Larretxeak** Nafarroako marka berri bat ezarri zuen abenduaren 7an Uharte-Arakilen burututako jaialdian.


BURLADA JATETXEA

*Eguberri, Urte Zahar eta Urte Berri egunak itxita egonen da*

✆ 634027 • ARANTZA



ALBERTO

ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Caramelo
- Ralph-Lauren
- Lacoste
- Genfis
- Barbour
- Redskins
- Bonaventure
- Diesel
- Liberto Club
- Scotch & Soda
- Chevignon
- Replay • Levi's...

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

*Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 • IRUN*



LABE ZAR

*✆ 631076 • BERA*

BOTXO ostatua

Tfnoa: 63 00 52

Zalain Auzoa, BERA

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

GOZOTEGI - JAIONE



Altzate, 19 • 630786 • BERA



TXIRULA

Albistur, 39-K

☎ 627542

LESAKA

• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

## SUNBILLA

# Bisitari aunitz hurbildu zen abenduko lehen asteburuan

### Olentzeroaren entsaioetara jendea hurbiltzea eskatzen da

JAIONE ETA ALBA

Jende ugari ibili da herrian barna abenduko lehen asteburu luze horretan. Kanpotar aunitz ikusi ahal izan genituen, bisitan etorriak. Jakin izan dugunez, landa-etxe guztiak beterik egon dira, besta egunak aprobetxatuz, herri berriak ezagutzera ateratzen baita jende ugari. Erran beharrik ez dago, gure herriko merkatal gune eta dendentzat hau dena arras komenigarria dela, baita gainerako herritarrontzat ere, lagun berriak egiteko aukera sortzen baita.

Hamar landa-etxe inguru ditugu Sunbillan eta guztiak beteta egoten dira uda osoan eta neguko asteburuetan.



**Aurten ere olentzeroa ikusiko da herrian barna. Prestaketarako bilera larunbat honetan izanen da Arantxaren garajean** Artxiboa

#### Antzakaitzeko bileraren berri

Abenduaren 6an, larunbata, Antzakaitz Kultur taldeak bilera burutu zuen eta gai haueтaz solastu zen: Olentzeroa, Kabalgata eta gerorako proiektuak.

Lerro hauek aprobetxatuz, olentzeroaren entsaioetara ahalik eta jende gehien hurbiltzea eskatzen da, ohitura hau galtzea penagarria litzatekeelako. Bertzalde, Errege-Kabalgata ere martxan dago. Hala ere, Eguberriak pasa arte bederen, larunbatero bilera izanen da Fonda ostatuan, frontoia erabiltzea ez baita posible.

### Arrutenea etxea moldatzeko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak 1.100.000 pezetako dirulaguntza eman du Karrika Nagusian dagoen Arrutenea etxea moldatzeko. Etxearen nagusia Miguel Latasa Alzuri da eta lanen aurrekontua 7.330.485 pezetakoa. Jakina denez, saihesbidea zabaldu ondotik, Karrika Nagusiko hainbat etxe zaharberritu dira eta bertze horrenbertze egin nahi dute Arrutenean.

**Hau bezain olentzero dotorerik ikusiko al dugu aurten?**



**ttipi-ttapa**

*6.500 harpidedun*
*24.000 irakurle*

Aldabe TAXIak

bezero zareten guzioi 1998 URTE BERRI zoriontsua eta osasuntsua opa dizue

Iosebe Aldabe
Parrokia K/ 10-2.a A
45 06 87
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63



Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-eremintak, etab...

ARIN ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

## DONEZTEBE

# San Migel eskolako handitze lanak abenduaren 2an inauguratu ziren

## DBHra egokitzeko 111 milioi gastatu dira

TXEMA ALDABE

San Migel eskola LOGSE legeak eskatutako baldintzetara egokitzeko egindako handitze eta moldatze lanak abenduaren 2an zabaldu ziren ofizialki. Lanak fase ezberdinetan egin dira, 1994. urtean hasita. Guztira 111 milioiko inbertsioa egin da horretarako, Hezkuntza eta Kultura sailak emandako informazioaren arabera. Inaugurazioira, hasiera batean Markotegi kontseilaria iragarrita bazegoen ere, Santiago Arellano Hezkuntza saileko zuzendaria etorri zen.



Santiago Arellano, eskuinean, Maria Jesus Perurena (DBH) eta Mª Jose Garcia (Lehen Hezkuntza) zuzendariekin solasean Argazkia: Txema

Honetaz gain, udala eskolan kirol instalazioak egiteko 100 milioi inguruko aurrekontua duen proiektua aztertzen ari dela aipatu zuen Miguel San Miguel alkateak. Lanak finantziatzeko proposamena luzatu zuen, *«erdia Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kirol eta Gazteria sailen bitartez, eta erdia Herriko Etxeak»*. Izan ere, kirol instalazio eta patioen beharra azpimarratu zuten Maria Jose Garcia eta Mª Jesus Perurena zuzendariek.

Ikastetxeak 269 ikasle ditu aurten, horietatik 218 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

### ETB-DV txapelketaren finala abenduaren 28an

Afizionatu mailan, pilota txapelketa garrantzitsuenetako bat den ETB-DV txapelketaren finala eskolako frontoian jokatuko da abenduaren 28an, eguerdi aldean.

Lehenbiziko aldia da finala Gipuzkoatik ateratzen dela eta horretan zerikusi haundia izan du Txaruta Pilota Elkarteak egindako lan ikaragarria. Lerro hauek idazterakoan, oraindik finalisten izena jakiterik ez bada ere, Tolosa eta Zumarragan jokatu behar diren finalerdietan, Berasaluze VII eta Pinedo, Berasaluze VIII eta Goñi, Esnal eta Iñurrategi eta Galarza eta Auxkin bikoteek jokatu behar zuten.

### Nafarroako Kantu txapelketaren finala larunbatean Bordatxon

Larunbat honetan, abenduak 20, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera burutuko da Bordatxo dantzalekuan Nafarroako Helduen Kantu txapelketaren finala. Asteburu honetan jokatzekoa zen Altsasun finalerdia eta saio horretatikl aterako dira aurtengo finalistak. Urtero bezala, Nafarroako Kantuzaleen Elkartea arduratu da antolaketaz.

## flash

**Zinea**
Abenduaren 27 eta 28an *«Como triunfar en Wall Street»* pelikula eskainiko dute Doneztebeko zineman. Hilbeltzaren 10 eta 11n, berriz, *«El quinto elemento»*. Larunbatetan, gaueko 10etan eta igandetan, arratsaldeko 5etan eta 8etan.

**Kontribuzioak**
1998an neurri hauen arabera ordaindu beharko dira Doneztebén: Hiri kontribuzioa, 0'2782; landa lurrena, 0'628 eta eraikuntza, instalazio eta obren gainekoa, %3'5.

**Herriguneko** sareak berritzeko proiektua onartu du Herriko Etxeak. Hirurteko Planean sartutako lan honen aurrekontua 220 milioi terdikoa da.

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ttipi-ttapa
6.500 harpidedun
23.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 63 11 88

## MALERREKA

# Arkupeak elkartearen urteko besta abenduaren 18an ospatuko da

Belate, Elizondo eta Donezteben burutuko dira ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Arkupeak erretiratuen elkarteak abenduaren 18an ospatuko du urteroko besta. Aurtengoan hiru leku ezberdinetan eginen dituzte ekitaldiak: Mendiola inguruan, Belate eta Almandozko tunelen artean, goizeko 11etan elkartuko dira autobusak. Handik Elizondora abiatuko dira, eguerdiko 12etan, Santiago elizan hildako bazkideen aldeko meza aditzeko. Ondotik, urteko balantzea eta datorren urteko asmoen berri emanen da solasaldi batean. Berriz ere autobusean igo eta Doneztebera joanen dira bazkaltzera. Azken urteotako ohitura segituz, Bordatxo dantzalekuan izanen dute bazkaria. Bazkal ondotik *Amalur* orkesta arituko da eta Eguberrietako zareak zozketatuko dira.



**Ohikoa den bezala, urte bukaerako besta sariak eta oroigarriak banatzeko aprobetxatuko du Arkupeak erretiratuen elkarteak** Artxiboa

### Oizko bi lagun auto istripuan hil ziren Tafallan

Jose Maria Ariztegi Juanena eta Jose Ignacio Mitxeo Legarreta oiztarrak auto istripu batean hil ziren abenduaren lehen egunean Tafallan.

Biak 63 urte zituzten hil zirenean. Jose Maria Errotenea baserrian jaio zen eta Lesakako fabrikan erretiroa hartua zuen. Egun bere aziendak zaintzen zituen baserrian.

Jose Ignacio, berriz, Karakoetxekoa zen eta bere bi anaiekin bizi zen. Autoan zihoazen beste hiru lagunak zauriekin atera ziren.

### flash

**Oihan aprobetxamenduak Saldiasen**

Saldiasen bi oihan aprobetxamendurako enkantea zabaldu du Herriko Etxeak. Lehenengoa, Berrentzenea inguruan 480 pinu ateratzeko da (213,480 $m^3$) eta hasierako prezioa 666.058 pezetakoa da. Bigarrena, Urrutiña inguruan 406 pinu aprobetxatzeko da (245,030 $m^3$). Hasierako prezioa, berriz, 1.274.156 pezeta. Proposamenak, abenduaren 20ko arratsaldeko 6ak baino lehen egon behar dute Herriko Etxean, plegu itxian. Berehala, sobreak zabaldu eta behin behineko adjudikazioa eginen da.

**Donamariako**

1998ko kontribuzioak neurri hauen arabera ordaindu beharko dira: Hiri kontribuzioa %0,21; landa lurrena %0,25 eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, %2.

# Eratsunen Basurdea ehizatu dute azaroaren 22an

Baita jan ere, astebete beranduago

MIREN DESKARGA

Udazkena etorri eta badoa, zuhaitzek hostoak edo bizitasuna galdu dute eta etxeko sukaldean bero-bero bagaude ere kanpoan hotz dago.

Garai honetan ehizaren gorabeherak izaten dira aipagai, hau da, gizaki eta animalien arteko lehia bukaezina...

Eratsunen, adibidez, azaroaren 22an, larunbatean, basurdea ikusi zutela-eta ehizatzera joan ziren...

Eta azkenean beraien helburua lortu ere, argazkian agertzen den bezala. Hor ageri dira, basurdearekin batera Mikel eta Joseba Deskarga anaiak eta beraien aita. Baina aipatzekoa da ere Claudio Retegi eta Jose Elizalderen partehartzea *(ze, erretratoan atertazeko lotsatu itten eo?).*

Honela bada, 95 kiloko basurde gazte baten jabe egin ziren eta hurrengo larunbatean, azaroaren 29an, herriko ostatuan afaria izan zuten. Ez zen askorik sobratu, noski.



**Deskarga aite-semeak, 95 kiloko basurdea aurrean dutela**





martzutzak
Arropa eta Opariak
Eztegara, 8
Bera
ireki berria




Eguberri On!
AYLA
ARGAZKILARITZA
Tfnoa: 630075




Amaya
Ameztia
☎ 450163
DONEZTEBE
• Era guztietako opariak
• Markako perfume eta kremetan ofertak




IPARLA KIROLAK
Kirolak orokorki
Santiago 51 • © 58 05 85 • ELIZONDO




Opariak 500 pezetatik goiti
Dirdir
Eztegara, 6
BERA




arandano
Tel: 451801
doneztebe
Boltsoak 5.000 pezetatik goiti




BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Iturlandeta 1 • BERA • © 631091
Telefono aparailuak
+ alta
+ 3 hilabete dohain
19.970 pta




Beatriz
Lurrindegia eta apaindegia
Santiago 53 • © 580283
ELIZONDO
Opariak, markako kremak eta perfumeak




PARIS · TEXAS
BONAVENTURE
JEANSWEAR
COCO'S
Bakero eta Sport arropa
Santiago 55 • © 581149 • ELIZONDO




Deñe
LENTZERIA
Tfnoa: 62 75 14
Beheko Plaza 8
LESAKA
Prezio guzietako opariak


EGUBERRI ON

# URTE ZAHARREKO AFARIAK






Urte Zaharreko Afariak aukeran
Afalondoko giroa alaitzeko,
Ione, Igone eta Izaro trikitilariak
arituko dira.
Hamabietan mahatsak, eta
ondotik… saski eder bat
zozketatuko da.
Goizaldera baratxuri zopak.

*Erreserbak egiteko*
*deitu lehenbailehen*

**✆ 948- 63 41 79 • ARANTZA**

---

## ETXANDI TXOKO jatetxea

Iberikoak aukeran, arrain kanapeak eta izokin keztatua

Langostinoak plantxan

Salda

Bixigua labean

Solomilloa plantxan guarnizioarekin

Konpota eta turroi ezberdinak

Homenaje ardoa, Codorniu cava, kafea eta kopa

Urtezahar mahatsak

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.500 Pta.**
*Erreserbak egiteko deitu*
***✆ 948- 45 04 91 / ITUREN***

---




**Erreserbak egiteko 948.510125 tfnoa.**
**Leitzako Gaina**

*Cava-koktela*

*Ehize-gutizien taula*

*Txangurro-hojaldrea zigalarekin*

*Axurikia onttoekin salteatua*

*Txokolate eta platano tarta turroizko izozkiarekin*

*Mazapanak*

*Kafea, Gran Feudo Crianza Beltza, Homenaje Gorria, Vallformosa Brut Cava, Marqués de Misa Brandya, William Lawson Wiskya, Patxarana eta Sagar likorea*

*Mahatsa eta sorpresa*

**5.000 pezeta** (+BEZ)

Dantzaldia eta ikuskizuna Luis Llamasen eskutik goizaldera arte
Festak irauten duen bitartean kanapeak banatuko dira eta bukaeran baratxuri-zopa

---



## BEREAU jatetxea • Hotela

Urdaiazpiko iberikoa

Kanapeak

Zainzuri beteak

Kogolloak antxoekin

Fritoak eta Piper beteak

Langostinoak

Kontsomea

Solomilloa

Hojaldre Tarta, mahatsak eta turroiak

Kafea, kopa, cava eta puroa

'Irache' ardoa

**PREZIOA: 4.500 Pta.**

***Erreserbak egiteko deitu***
***✆ 948- 62 75 09***
**Lesakako zubia • LESAKA**

# URTE ZAHARREKO AFARIAK

## IGANTZI JATETXEA

Patea, kogolloak antxoekin, kraba pudina, fritoak, etxeko nahaskia

Marisko krema eta langostinoak

Legatza mariskoz betea

Solomilloa guarnizioarekin

Postrea aukeran

Mahatsak

Kafea, kopa eta puroa

ATONDO Ardoak

4 lagunendako txanpain botila

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.000 Pta.**

*© 63 75 02 / IGANTZI*



## AMEZTIA JATETXEA

*Nahi izanez gero, bertan lo egin dezakezu*

*Urdaiazpiko Iberikoa*

*Antzar-patea*

*Espinaka eta ganba pudina*

*Salda Xerez erara*

*Izokina itsas-fruituekin*

*Etxeko solomilloa goarnizioarekin*

*Piku biskuita txokolate krema gainean*

*Kafea eta kopak, ardoa, Codorniu Txanpaina*

*Mahatsak eta Kotiloi boltsa*

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.900 Pta.**

***Erreserbak egiteko deitu 29a baino lehen***

*© 948- 45 00 28*

**DONEZTEBE**

## Uxoa

*Okindegia* *Jatetxea*

Entremes hotz eta beroak

Arrain zopa

Angula kaxulak

Bixigua edo rapea

Txuleta edo solomilloa

Urtezahar postreak

Ardoa, txanpaina eta kafea

*Goizalde arte dantzaldia*

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.500 Pta.**

*Erreserbak egiteko deitu*

**© 45 34 03 ARIZKUN**

## Hotel Mugaire

*Ezkur urdaiazpiko eta xolomoa*

*Marisko entsalada*

*Krabaroka pastela*

*Almejak saltsan*

*Muskuilu krema*

*Lupina onddoekin*

*Solomilloa guarnizioarekin*

*Piku biscuit-a intxaur saltsarekin*

*Turroiak aukeran eta mahatsa*

*Kafea, kopa eta zigarroak. Ardoak: Iratxe ardo beltz eta gorria. Codorniu cava.*

*Sorpresa boltsak*

**Goizaldera arte dantzaldia**

***Erreserbak egiteko deitu faborez (Plaza limitatuak)***

***© 59 20 50 / Hotel Mugaire***































1998 URTE ZORIONTSUA

# MALERREKA

## Iturengo Kultur Egunak arrakastatsuak suertatu dira

IBAN ISASI

Aitzineko alean aipatu bezala, Ibintza Kultur taldeak antolatutako Kultu Egunak abenduaren 5tik 7ra burutu ziren. Ekitaldiz jositako hiru egun eta partehartzea ere ez da makala izan. Ortziralean, trikitilarien kalejiraren ondotik antisorgailuei buruzko solasaldi interesgarria aditzeko parada izan zen COFESeko langile baten eskutik. Talo jatearen ondotik eta eguna akitzeko *«Lekuko bakarra»* pelikula eskaini zuten.

Larunbatean, eguna herritarren arteko futbol partidu batekin hasi zen, hameketakoa ondotik eta arratsaldez haurrei eskainitako karaokea, berendua eta pelikula. Gauez, Berako *Borrokan* eta Gipuzkoako *Utikan* taldeek kontzertua eskaini zuten.

Igande arratsaldez, Itoitzeko aferari buruzko kontuak aipatu zituen Itoizko urtegiaren aurkako Koordinakundeko lagun batek. Azkeneko epaiatik ateratako sententziak –beraien aldekoak gehienak eta hemendik aitzinera zein pausu jarraitu behar dituzten azaldu zituen. Helduei zuzendutako *Umekeriak* antzerki saioa ikustera, herriko eta inguruetako jende ugari bildu zen. Mañukorta eta Amurizaren bertsoak aditzeko ere 50 bat lagun bildu ziren Altxunea erretegian. Ia-ia neguko bestak bihurtu diren hauek akitzeko, dantzaldia izan zen Herriko Etxeko arkupetan Mundiñano anaien eskutik.

## Datorren urteko ikastaroen berri eman du Langarrak

Urtea akitzearekin batera, Langarra taldeak datorren urterako antolatu dituen ikastaroen berri eman du. Talde ttikiak izanen direnez, lehenbailehen izena eman beharko da, 451746 (Esther) eta 450441 (Aintzane) telefonoetan. Hona hemen eskaini nahi diren ikastaroak:

- **Sendabelarrak:** maiatzetik ekainera, 20 orduz. 3.500 pta.
- **Antzerkigintza:** Hilbeltzetik ekainera, 40 orduz. 7.000 pta.
- **Bertsolaritza:** Hilbeltzetik otsailera, 16 orduz. Prezioa: 2.800 pta.
- **Masajea:** Hilbeltzetik martxora, 16 orduz. 2.800 pezeta.
- **Txalaparta:** Otsailetik martxora, 8 orduz, 1.500 pta.



## GOIZUETA

# Xalto Saria abenduaren 26an ospatuko da azkenean

Umore Onak, asteburu honetan jokatuko du Espainiako pilota txapelketako finalak

**ESTEBAN AROZENA**

Abenduaren 5ean dena prest zegoen herrian Nafarroako bertsolari gazteen txapelketa den «Xalto» Saria ospatzeko, baina egun horretan gertatu zen ezbehar larri bat zela medio, bertan behera gelditu zen saioa. Hala ere, antolatzaileek berehala paratu dute horretarako data, eta bien bitartean ez bada inolako arazorik sortzen hurrengo ostiralean, abenduak 26, ospatuko da.

Xabier Legarreta, Estitxu Fernandez, Oskar Estanga, Iñigo Olaetxea, Amets Arzallus eta Erika Lagomaren artean egonen da aurtengo Xalto Sariaren txapela eta kopa eskuratuko dituen bertsolaria. Afariaren eta saioaren ordutegia lehengoan mantentzen da. Txartelak ere aurreko egunerako hartutakoak erabiliko dira hilaren 26ko honetan.



**Bertso festa ospatu zen**

Azaroaren 27an bertso festa ederra ospatu zuten urtero bezala eskoletan. Argazkian, herriko bertso eskolako ikasleak eta bertso-paper lehiaketaren irabazleak, Aitor Mendiluze Gipuzkoako txapeldunarekin batera ageri dira.

### Pilota txapelketa

Umore Onako pilotariek, joan den irailean hasi eta lehengo igandera arte iraun duen ligan egindako lan ederrari esker, Barakaldon izanen dira estatuko beste hiru klubekin asteburu honetan, Espainiako kluben arteko txapelketa jokoan izanen delarik.

Ostiralean, abenduak 19, Altsasuko Galartza, Atxa eta Zerroren kontra neurtuko dituzte indarrak. Finalerdi hau gaindiko balute, igandean jokatuko lukete finala. Gogorarazi, Umore Onako hiruko titularra, Juantxo Apezetxea, Aimar Olaizola eta Jexux Mari Almadozek osatzen dutela. Aditu askoren ustez, txapelketa hau irabazteko faborito nagusiak goizuetarrak dira. Hala bedi!

### Juamiel Iruñeara

Madriletik zabaldutako berriak baieztatu baldin badira, lerro hauek irakurtzerakoan Iruñeako gartzelan egonen da Juan Migel Apezetxea. Leku aldatze honek herritarren artean poza sortu duen arren, kontuan izan behar da aspaldian kalean egon behar lukeela Juan Migelek, Espainiako legediaren arabera.

## ARESO

# Euskararen Eguna ospatu zen abenduaren 7an

Txikienek lehen aldiz dantzatu zuten



**Euskararen Egunean lehen aldiz dantzatu zuten txikienek**

Juana Mari

**JUANA Mª SAIZAR**

Abenduaren 7an, neguko festa nagusia ospatu zen, Euskararen Eguna, Guraso elkarteak eta Kultur Taldeak antolatuta. Eguerdi aldera hasi zen festa pilota partiduekin. Herriko umeek jokatu zuten eta partidu bat baino gehiago jokatu zenez, horrek dexente atzeratu zuen dantza saioa. Herriko ume txikiak dantzan aritu ziren lehenbiziko aldiz. Bitartean, eguraldi hotzari kontra egiteko taloak prestatu zituzten eta banabar-jatea izan zen eguerdian Pake-Toki elkartean.

Arratsaldean, iaz bezala, trikitixa txapelketa burutu zen lau talderen partehartzearekin: Igor eta Jokin aresoarrak bigarren geldituziren. Ondoren, karaokea izan zen, nahi zuen guziak parte hartzeko. Hasieran umeei kantatzera ateratzea kosta bazitzaien ere, gero gustoa hartu zioten. Afari eta dantzaldiarekin bukaera eman zitzaion jaialdiari.

## LEITZA

# Senideen martxak herritarren elkartasuna jaso zuen

### Manifestazio isilarekin bukatu ziren ekitaldiak

JOSEBA AZPIROZ




**Senideak erakundearen martxak, hainbat herritarren elkartasuna eta atxikimendua bildu zuen** Argazkia: Mikel Zabaleta

Herritar asko bildu zen abenduaren 7an, euskal preso eta errefuxiatu politikoen Senideei egindako ongi etorrian. Goizeko 10etan, plazan egindako ekitaldian, herriko zenbait erakunde, talde eta elkartek beraien aldarrikapenekin atxikimendua adierazi zieten. HB eta EAko zinegotziek ere, ahobatez onartu zuten Senideak aurkeztutako mozioa. Besteak beste, preso eta beraien senideen eskubideak betetzea, gainerakoan Europako instituzio ezberdinetan salatzea, zenbait instituzioek hartutako erabaki politikoak lehenbailehen betetzea eta senideen martxarekin bat egitea erabaki zen azaroaren 28ko udal batzarrean. Bukaeran egin zen manifestaldi isilean ere, jende askok parte hartu zuen.

## flash

**Bertso afaria** burutuko da abenduaren 19an, gaueko 9etan, Torrea elkartean. Bertsolariak, Irazu eta Sorozabal izanen dira.

**Antzerkia**
Abenduaren 20an, arratseko 8etan zineman, Ttanttaka antzerki taldeak *«Shakespeare oso (gutxigora-behera)»* antzeslana eskainiko du, Leitzako Kultur Taldeak antolatuta.

**Plazaola**
Partzuergo Turistikoak herri-kirolaren inguruan antolatu duen erakusketa hilbeltzaren 6a arte luzatuko da.

**Zinea**
Abenduaren 19-21: *«Mentiroso compulsivo»*. 21ean *«Batman y Robin»*. 26-28an *«Bean»*.





## Urrezko Ezteiak

Joxe Joakin Labaien eta Anttoni Saralegi, 1947ko azaroaren 26an ezkondu ziren. 50 urte pasa ondoren beraien 8 seme-alabekin eta gainontzeko sendiarekin ospatzeko aukera ere izan dute, ederki ospatu gainera. Zorionak!



## 144 kiloko basurde tzarra ehizatu dute Iruson

144 kiloko basurde tzar hau Jesus Mª Ezkurrak bota zuen Iruso inguruan azaroaren 29an. Bi metrotako luzera zuen eta metro terdiko zirkunferentziako kaxa torazikoa. Ez dira ez, horrelako asko ikusten.

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
• Bixkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA
✆ (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO
• Diabetia
• Asma
• Larru azaleko alergia
• Buruko mina
• Zizareak
• Oinen izerdia
• Prostata, etab...

ttipi-ttapa
6.500 harpidedun
23.000 irakurle

## BAZTAN




**Baztandik Iparraldera eramaten duen Errege Bideak 150 urte bete ditu**

Belate eta Otxondo pasatuz Dantxarineara doaien bideak 150 urte bete ditu aurten. Bere garaian, eztabaida ugari sortu zituen, batez ere Elizondon, hainbat baratze eta ogi-labe hondatu baitzituen herritik pasatzerakoan –gaur egungo Santiago karrika da bide hori–. 1847an zabaldu zen bidea Berroetako bidegurutzean bitan banatuz, Dantxarineara eta Endarlatsara eta 11 milioi erreal gosta zen. Iruñetik Berroetara sei lekoa terdi omen zeuden, handik 7 Dantxarineara eta 5 Endarlatsara. Gaur egun moldaketak behar dituzte bide hauek, trafiko gero eta ugariagoari irtenbidea emateko. Arg.: D.Noticias

### Bi gazte hilak Elizondoko sarreran izandako auto istripu larrian

Arraiozko Pedro Telletxea Urrutia eta Elizondoko Angel Telletxea Zaldain osaba-ilobak hil ziren abenduaren 3an Elizondoko sarreran izandako auto istripu larrian. Aitzintzerakoan autoaren kontrola galdu eta zuhaitza jo zuten, berehala hil zirelarik. Kotxe berean zoaien Xabier Urrutia Bengoetxea elizondarra Iruñeko eritetxe batera eraman zuten su-hiltzaileen anbulantzian.

Pedro, Arraiozko Putxiria baserrikoa zen eta teilatuak berritzen aritzen zen lanean. Angel, berriz, Lekaroz-Elizondoko institutuan ikasten zuen eta Baztan futbol taldean jokatzen zuen, jubenil mailan.

# Eguberritako kulturaldia antolatu du Baztandarren Biltzarrak

## Herriz herri eta egunez egun hainbat ekitaldi burutuko dira

Pablo MENDIBURU

Ekitaldiz betetako *«Eguberritako kulturaldia»* burutuko da datozen asteetan, Baztandarren Biltzarrak, hainbat erakunde eta elkarteren laguntzaz –Doike, Euskara Zerbitzua, AEK, Baztango Mendigoizaleak, Pilota Eskola, Iruritako Parrokia, Baztango Gazte Asanblada, Baztango herriak eta elkarteak– antolatuta. Hona egitaraua, egunez egun.

**Ortzileria, abenduak 19:** *«Chiapas»* izeneko diapositiba emanaldia izanen da Berroetako eskolan, atsaldeko 8etan.

**Launbeta, abenduak 20:** Mus txapelketaren finalaurrekoak Azpilkueta, Lekaroz, Gartzain eta Almandozen.

**Igandea, abenduak 21:** Mendi ateraldia Legatera, Gerardo Plazaren omenez.

**Astelehena, abenduak 22:** Argazkilaritza tailerraren hasiera. Bertzalde, *«Emakumea baserrian»* solasaldia, EHNEk emana, Zigako elkartean atsaldeko 8etan.

**Ortzileria, abenduak 26:** *«Berako espidizioa Peruko Cordillera Blancara»* diapositibak Erratzuko elkartean, atsaldeko 8etan.

**Launbeta, abenduak 27:** Mus txapelketaren finala Oronoz-Mugairiko Gaztelune elkartean atsaldeko 8etan (Ondoren afaria izanen da apuntatu nahi duten guziendako).

**Igandea, abenduak 28:** Mendi ateraldia Auzara, Peio eta Ramonen omenez.

**Astelehena, abenduak 29:** *«Gazteak eta lana»* mahaingurua Elizondoko Arizkunenean, atsaldeko 7,30etan.

**Asteartea, abenduak 30:** *«Euskaldunak Ameriketan»* solasaldia Joseba Etxarriren eskutik, Arizkunenean atsaldeko 8etan.

**Ortzileria, hilbeltzak 2:** «Alaska» diapositiba emanaldia, Ander Olaizolak emana, Arizkungo elkartean, atsaldeko 8etan.

**Launbeta, hilbeltzak 3:** Josetxo Goia Aribe musikariaren emanaldia (saxo eta biolontxeloa), Iruritako elizan atsaldeko 8,30etan.

**Igandea, hilbeltzak 4:** 'Gortari' Txotxongilo taldearen *«Herrialde urdina»* ikuskizuna, Arizkunenean, atsaldeko 5etan.

**Asteartea, hilbeltzak 6:** Baztango pilota eskolak antolatutako txapelketaren finalak.

**La Asturiana**
ostatu• jatetxea
Tfnoa: 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 25
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

**OPS** *Ingenieros S.L.*
• **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
• **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur depositoak, etxebizitzak, granjak, nabeak...
Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

BAZTAN

# Eguberrietarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Iruritako gurasoek

## Bertze herrietan ere nabarituko da egunotako kutsua

TTIPI-TTAPA

Iruritako Guraso Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Eguberri egun hauetarako.

Abenduaren 22ko goiza, plazako zuhaitza apaintzeko deia luzatu dute. Abenduaren 24an olentzeroarekin ibiliko dira, goizez bordetan eta arratsaldean herrian. Eguberri egunean, berriz, Meza Nagusia eta, ondoren, eskulanen eta Jaiotzen erakusketaren inaugurazioa. Adin ezberdinetako haurrendako jokoak izanen dira abenduaren 26, 27 eta 29an eta ia egunero, Inoxente Egunean hasita Errege bezpera bitartean, Nobenika ospatuko dute.

Hilbeltzaren 2an *abenturazko filmea* eskainiko dute zentroan, arratsaldeko 5etan. Biharamonean, 8etan, herriko gazteen antzeslana. 4ean, haurrek pelikula aukeratu ahal izanen dute. Errege egunean gazteen koruak abestuko du Mezan eta arratsaldez, pilota txapelketaren finala.



### Belate eta Almandozko tunelek herriko apezaren bedeinkazioa jaso zuten

Erregea eta gainerako agintariak etorri bai, baina bi zuloei bedeinkazioa ematea atzendu zitzaien, nonbait. Horregatik, San Frantzisko egunean, Ramon apezak bedeinkazioa eman zien bi tunelei, Mendiola inguruan. Tunelak irekitzen ziren bitartean hildako lau langileak gogoratu zituen eta bere itxaropena adierazi zuen, *«orain, Iruña eta Erribera aldeko nafarrek gu hobekiago ezagutuko gaituzte, betidanik izan den muga fisiko eta sikologiko hori desagertzeko baliagarria izatea espero dut».*

### Berroetako elizan egindako lanetan 4.690.000 pezeta gastatu dira

Berroetan egindako batzarrean, etxe batek ura eskatzeaz gain, berriz ere Baztango Balleko Etxeari Margeri bidea konpontzea eskatzea erabaki zen, aspaldian baitaude horren esperoan.

Bertze aldetik elizan egindako lanen kostoa 4.690.000 pezetakoa izan da. Orain arte herriak milioi bat jarri badu ere, apezak dirua eskatu du berriz. Batzuen ustez, bota urren dagoen apezaren etxea saldu eta diru hori aprobetxatu beharko itzateke obrak ordaintzeko. Paretak garbitu eta luzitu, zola losaztatu, gorapea moldatu eta pintatu, kalefakzioa, lau aldare eta sainduak garbitzea izan dira eginiko lanak.

P.M.

## flash

**Oihanberritze lanak**

Gorramendi eta Urritzate mendietako Ormaiteko eta Ansaistei inguruetan oihanberritze lanak egiteko proiektua onartu du Balleko Etxeak. Proiektua *Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.* enpreak idatzi du, 29.418.504 pezetaren truke.

**Argazkilaritza ikastaroa**

teorikoa eta praktikoa antolatu du Doike Euskara taldeak. Izen emateko epea ortziralean, abenduak 19, bukatuko da. Horretarako Mena argazkidendan 1.500 pezeta utzi beharko dira matrikula gisara. Ikastaroa abenduaren 22, 23, 24, 29, 30 eta 31n burutuko da, goizeko 10etatik 12ak artio Lekarozko Institutuan.

**Senideak**

erakundearen martxa Baztanera ailegatu zen abenduaren 10ean. Elizondon egin zen ongietorria eta enkartelada. Gero, Arizkunera gan ziren bazkaltzera. Hainbat talderen elkartasuna jaso dute.


LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305



Elizatze
ERLOJUTEGI
BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN



• Hileta artea
MARMOLES GRANITOS
AMEZTI, S.A.L.
KALITATEA eta ESPERIENTZIA
• Marmol eta granitoak
• Sukalde eta bainurako entzimerak
• Lanak orokorrean
Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

## ZUGARRAMURDI

# Hainbat bisitari etorri ziren abenduko lehen asteburu luze horretan

### Bizikleta nahiz zaldiz ibiltzera, lezeak nahiz Urbia mendia ikustera

KORO ETA MARGARI

Abendu hasierako «zubi-foral» huntan jende aunitz mugitu da gure inguru hauetan. Ez balitz eguraldi hotza kontutan hartzen, arras udan ginela ematen zuen. Aipatzekoa da, gaur egun agertzen direnak ez direla bakarrik lezeak ikusteko aitzakiarengatik etortzen. Gero eta gehiago bertze bisitari klase bat ikusten da: alde batetik bizikletaz eta zaldiz ibilaldiak egiten dituztenak; hiru lezeen arteko pottoka-bidexkak ere arrakasta haundia lortu du; eta azken hilabete hauetan Urbia mendira jotzen dutenak ere badire.

Eta Urbian zer ote den ba, galdetzen baduzue, hona erantzuna: alde batetik saiak edo putreak) ikusten ahal direla, aunitz eta franko hurbil. Bertze aldetik, Urbiatik oinez abiatu eta Loiarako zelaian dauden harrespilak (edo cromlechak) eta trikuharria (edo dolmena); trikuharri hunen izena «Mairuhilarrieta» da eta euskal mitologiako *Mari* han lurperatua omen da. Bai putreak, bai hilarriak ikustera gateko bide errexa denez, gero eta jende gehiago ailegatzen da tokiotara.

## EHIZA

### Euskal Herriko usazaleen urteko bilkura Etxalarren burutu zen

Urtea nahi bezain ongi joan ez bazaie ere, urteroko ohiturari segituz, Euskal Herriko usazaleak bildu ziren abenduaren 6an, aurtengoan Etxalarren. Sareen bidez harrapatutako usoak arras guti izan dira aurten –ondoko koadroan ageri den bezala– baina usategietako langileak pozik ageri ziren, berriz elkar ikusteko aukera baitzuten



| Usategia | Iaz | Aurten |
|---|---|---|
| Lanne | 2.572 | 1.420 |
| Suhuskune | 3.085 | 1.183 |
| Olhaibi | 1.428 | 192 |
| Lekunberri | 2.603 | 690 |
| **Sara** | **316** | **177** |
| **Etxalar** | **1.840** | **1.217** |
| Aldude | 405 | 199 |
| Oxkixe | 1.853 | 1.058 |
| Gatagorena | 705 | 71 |
| Napari | 4.048 | 1.557 |


Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI


J. RAMOS
*Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut*
✆ 631342 BERA • ✆ 637172 LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa • ✆ 63 78 26
LESAKA

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

PIKABEA *pinturak*
Molinero drogerian galdetu
